

Ikastetxe eta euskaltegiatarako 22. KORRIKAREN unitate didaktikoak aurkeztu dituzte AEK-k eta Ikastolen Elkartek

Hezkuntza-zentro eta euskaltegiatarako unitate didaktikoak aurkeztu dituzte AEK/KORRIKAKo eta Ikastolen Elkarteko ordezkariak, Ziburuko Piarres Larzabal kolegioan. Bilduma www.korrika.eus webgunean dago eskuragarri, eta ikastetxeatarako unitate sorta osorik on-line lantzeko aukera dago. Asier Amondo KORRIKA arduradunak adierazi du elkarlana bi erakundeen «sinergiaren» fruitua dela. Unitatearen erakustaldi laburra egin dute Piarres Larzabal kolegioko ikasleek.

KORRIKAREN edukiak lantzeko unitate didaktikoen bilduma aurkeztu dute AEK/KORRIKAKo eta Ikastolen Elkarteko arduradunek gaur, martxoak 4, Ziburuko Piarres Larzabal kolegioan, bertako ikasleen laguntzarekin.

Unitate didaktiko hauek «gure bi erakundeen sinergiaren emaitza» direla adierazi du Asier Amondo KORRIKA arduradunak. Ikastolen Elkarteko kideek sortu dituzte unitateak, baina hezkuntza-zentro guztietan lantzeko modukoak dira.

Koldo Tellitu Ikastolen Elkarteko lehendakariak ere hartu du hitza agerraldian, eta Euskal Herri euskaldunaren alde lanean diharduten bi erakundeen elkarlana azpimarratu du: «Ikastolontzat ohore handia da ekimen honetan parte hartzea». Horrez gain, Tellituren esanetan, KORRIKAK «hamar-hamabi egunez haize freskoa eramaten dio tokian tokiko euskalgintzari». Peio Jorajuriak, Seaskako lehendakariak, ere hartu du parte aurkezpenean.

Ikastetxeatarako eta euskaltegiatarako

Aipatutako bilduma bi material sortaz osaturik dago: hezkuntza zentroi zuzendutako sorta eta euskaltegiatarako sorta.

Lehenengoei dagokienez, unitateek hezkuntza formalaren etapa guztiak hartzen dituzte, Haur Hezkuntzatik 18 urtera bitartean. Iñaki Zapirain unitateen egileak

aipatu duenez, «aurtengo nobedadeen artean ipuin baten bideoa dugu, *Pilota gorri batekin* ipuina, alegia; Gaizka Chamizo aktorearekin egindako elkarlana. Bestalde, unitateetan aurtengo KORRIKAREN kanta, dokumentala eta omenduak ere jorratzen dira, eduki bakoitza maila ezberdinetara egokitua». Irakasleek unitate guztiak on-line landu ahalko dituzte, www.korrika.eus/unitate-didaktikoak/ webgunean.

Amaia Lopez de Luzuriagak, bere aldetik, euskaltegiatarako atazak aurkeztu ditu. Berak adierazi bezala, «aurten KORRIKAREN hainbat mugarriren inguruan sortu dituzte atazak; eta, horrez gain, aberasgarritzat jo du jolas interaktiboen erabilera, hainbat trebetasun lantzeko balio baitu». Bestetik, aipamen berezia egin die gurasoentzat sortutako atazei, euskaraz ikasten ari diren guraso eta umeen arteko transmisioan eragitea helburu izanik.

Kolegioko ikasleak, protagonista

Didaktikarien azalpenez gain, unitateen erakustaldi laburra egin dute Piarres Larzabal kolegioko ikasleek, 22. KORRIKAREN kantaren koreografia dantzatuz. Bestalde, kazetari lanak ere egin dituzte Ziburuko gazteek, eta bertaratutakoei KORRIKAREN gaineko galderak egin dizkiete.

Unitate didaktiko bilduma eskuragarri dago www.korrika.eus webgunean, "Unitate didaktikoak" atalean.